

**BERRIZ ERE GIPUTZEZ.**—Aurreko zenbakian *Giputza* deituraz zenbait ohar eman genituen, XIV eta XV. mendeetan ezagutzen ziren deitura bezala. Baina ez genuen uste deitura hori oraindik bizirik zenik Ifar Euskal Herrian *Iphutcha* bazela jakinarte. Baionato Institut d'Etudes Basques, Bordeleko Unibertsitatearen babespean berriki sortua, euskal kultura eta hizkuntzari buruzko zertifikatuak banatzean hartzailetako bat zen Marie-Pierre Iphutcha. Hala irakurtzen zen *Herria* asterekoaren 1758 zenbakiaren 7. orrialdean (1984ko ekainaren 21ekoa).

**EZINA ESKAINTZEN.**—Eguneroko lana utzi eta erabat literaturgintzara emana bizi ahal izateko tentaziorik ia izan duen, galde egiten zion *Habe*-ko ordezkariak Yon Etxaideri (ikus *Habe*, 40. zenb., 1984-IV-1). Gizon bati holako galdera bururatu behar zaionik pentsatzea bera ere itxura gabea da. Urkatuaren etxean soka aipatzea bezalakoa denez. Denboraz patxada lasaian bizi den arinen bati edo gogoratzen zaio holako galderarik, eta ez bere lanez ogia jan beharra duen bati, eta askoz gutiago familiko guraso den bati.

Harritzekoa da ez ohartzea ere lehen aberriaren idealez hainbeste lan egin duen idazlea oraindik etsipendurik ikusi beharra. Baina, *Habe*-ko galdegilea, dirudienez, inoiz ez da kezkatu euskal idazlea zertaz bizi den jakiteaz ere. Beste batzuk ohartu ez diren bezala. Eta, egoera honi soluzio biderik ematen ez bazaio, gure herri autonomiaren barruan behinik-pehin, euskal literaturak betiko porrot egindo du.

Gure kultura urriak hirugarren munduko erak erakusten dizkigu. Eta *Habe*-koa ez da jabetu, alfabetatze euskalduntze lanetan, irrati eta telebistakoetan, itzultzaileenetan (naiz eta paper-busti bihurtuko diren aktak euskaratzen) laguntzak daudela. Laguntzak dituen euskarazko liburuak argitara-